

# Abarrak

JON TORNER

## Argentina macanudoa da, pibe

*Macanudo 2.* Ricardo Siri 'Liniers'  
Random House Mondadori (2007).  
Interneten: <http://macanudoliniers.blogspot.com>.

RICARDO SIRI 'LINIERS' argentinarrak *La Nación* egunkarian plazaratzen ditu komiki-tira edo "txis-teak", berak gustuko duen terminoa erabiltzearen. Nahikoa material duenean, liburu batean biltzen ditu.

Haren estiloa bi hitzetan definitzea ez da batere erraza. Bere txis-teak serio eta barregarriak dira, xalo eta inteligenteak, absurdu eta koherenteak. Bi bider irakurri behar dira batzuk, eta bi segundotan irentsi-siko ditugu besteak. Dozena bat irakurri ostean, ordea, ildo berdinari jarraitzen diotela ohartuko gara. Egunerokotasunari heltzeko modu berezia du autoreak, ez aktualitateari, egunean zehar egin, ikusi eta entzuten ditugun gauza txiki horiei begiratzeko baizik. Argentinaz kanpoko edizioetan behintzat hala gertatzen da. Politika kontuak-eta albo batera uzten ditu *Macanudok*, gai unibertsalagoak margotzeko.

Kazetari argentinarrak batek dio bere herrialdea ez dela soilik Maitena eta Quino, *Mujeres Alteradas* eta *Mafalda*. Zuzen dabil, Argentina askoz gehiago da. Eta arrazoia zein izan daitekeen ez dakit, baina hiruen artean *Macanudok* erakarri nau gehien. Ezagutzen ez nuelako agian, edo umore surrealistagoa erabiltzen duelako. Pertsonaia mordo agertzen da liburuan: Enriqueta neska txikia eta bere katu Fellini, pelikulen izenburuak zentzurik gabe itzultzen dituen eruditua, zazpigarren artearen misterio argitzen dituen behi zinefiloa, beltzeko gizon misterio-tsua, gizakien antzera jokatzen duten ardiak eta pingui-noak... Desberdintasunak desberdintasun, Patxi Huarte *Zaldi Eroa* eta bere *De Rerum Natura* komiki-tirak ekarri dizkit burura. Iruñearrak gehiago heltzen dio aktualitateari, baina parkean ikusi duenari edo bere katuari buruzko komikiak ere marratzen ditu. Eta animaliak hizketan jartzen ditu sarri. Hura atsegin baduzu, ziur Liniersen umorea ere gustuko izango duzula.



## Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak: .....

Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....

Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....

N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....

Ordainketa mota:  Bankuz  
 Taloiez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa: .....

Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....

Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefona: .....

Entitatea: \_\_\_\_\_ Sukurtsala: \_\_\_\_\_ K.D.: \_\_\_\_\_ Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_

Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

### Aukeratu ongietorri oparia



"Kirolaz badakit"  
mahai-jolasa



"888 txiste"  
liburua



"Txoriak txori"  
lamina



%25eko beherapena  
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:  
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian  
165 € Ipar Euskal Herrian

**argia**